



Gasteizen, 2023ko maiatzaren 15ean

Lagun hori,

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, harremanetan jartzen gara Euskadiko kirol federazio eta klubekin Euskadin kirol arloan gerta daitezkeen eraso sexistei aurre egiteko indarrean dauden programa eta zerbitzuen berri eman eta gogorarazteko. Beharrezko ikusi dugu zuekin informazio hau partekatzea Arabako saskibalo federatua gertatu ahal izan den eraso sexista bat dela eta azken egunotan egon den salaketa baten berri jakin ostean.

Izan ere, azpimarratu nahi dugu kirol esparruan ere erakunde publiko, federazio eta klubean arteko elkarlana ezinbestekoa dela, neska eta emakumeek berdintasunean eta eraso sexistarik gabe jardun ahal izateko, euren askatasuna, integritatea eta eskubide guztiak erabat errespetatuko direlarik.

Gogora ekarri nahi genuke, halaber, eraso sexista hauek saihesteko modurik oinarritzak eta eraginkorrena gizartearen orohar, eta kasu honetan kirol esparruan, harreman berdinezaleak eta errespetuzkoak eraikitzea eta esparru honetan berdintasun erreala lortzea dela. Horretarako gako nagusietako bat da gizartearen sentsibilizatzea eta bakoitzak gure jardun eremuetan jakintza eta kontzientzia hori indartzea eta praktikan jartzea.

Horrela ba, orain arte bezala, Eusko Jaurlaritzaren prestasun osoa agertzen dizuegu jardueraren fisikoaren eta kirolaren arloan eraso sexisten kontra eta berdintasunaren alde elkarlanean aurrera urratsak ematen jarraitzeko.

Lagun hori,

La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco nos ponemos en contacto con las federaciones y clubes deportivos de Euskadi para informarnos y recordaros los programas y servicios existentes en Euskadi para hacer frente a posibles agresiones sexistas en el ámbito del deporte en Euskadi. Hemos considerado necesario compartir con vosotros y vosotras esta información, tras tener conocimiento en los últimos días de una denuncia por agresión sexista que ha podido producirse en el ámbito del baloncesto federado de Araba.

Queremos subrayar que también en el ámbito del deporte la colaboración entre instituciones públicas, federaciones y clubes es imprescindible para que chicas y mujeres puedan ejercer su actividad en igualdad, sin amenazas de agresiones sexistas, y con garantías de que se respeten plenamente su libertad, su integridad y todos sus derechos.

Asimismo, quisiéramos recordar que la forma más elemental y eficaz para evitar estas agresiones sexistas en la sociedad en general, y en este caso en la esfera deportiva, es construir marcos de relación igualitarias y respetuosas y avanzar hacia la igualdad real en este campo. Una de las claves para ello es la sensibilización y la formación, para luego reforzar y poner en práctica ese conocimiento y esa conciencia, cada cual en nuestros ámbitos de actuación.

Así pues, reiteramos la total disposición del Gobierno Vasco a trabajar conjuntamente para seguir avanzando en la lucha contra las agresiones sexistas y a favor de la igualdad en el ámbito de la actividad física y el deporte.



Amaitzeko, aipatu bezala, gutun honi erantsitako orrian aurkituko dituzue Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen programak eta zerbitzuak kirolean, eta bestelako esparruetan, gerta litezkeen eraso sexistak prebenitu eta aurre egiteko. Halaber, eskatzen dizuegu, zuen kideen artean informazio hau zabaldu dezazuela.

Gure aldetik, behar den guzti-guztietan zerbitzu horiek erabiltzera animatzen zaituztegu, bai kirol federazio eta klubak, baita norbanakoak ere.

Aldez aurretik zuen lankidetzaz eskertuz,

Adeitasunez,

Nerea Melgosa Vega  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako  
sailburua

Para finalizar, como hemos mencionado, adjuntamos a esta carta la información relativa a los programas y servicios del Gobierno Vasco en el ámbito deportivo y en otros ámbitos para prevenir y combatir posibles agresiones sexistas. Asimismo, os solicitamos que realicéis la difusión de dicha información entre todos vuestros miembros, socios y socias.

Por nuestra parte, tanto a las federaciones y clubes, como a vuestras y vuestros miembros de manera particular, os animamos a recurrir a estos servicios todas y cada una de las veces que sea necesario.

Agradeciendo de antemano su colaboración,

Atentamente,

Bingen Zupiria Gorostidi  
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua





## BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, GIZARTE POLITIKETAKO SAILA JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

### HAURREN ETA FAMILIAREN ZUZENDARITZA

ZEUK ESAN: HAURTZARORAKO ETA NERABEZARORAKO LAGUNTZA ZERBITZUA.

Euskadiko haurrei eta nerabeei zuzendutako programa zabala da. Zeukesan-ek laguntza emateko telefonoa eta web-orrialdea dauzka. Alde batetik, ZeukEsan-en telefonoa, 116 111, doakoa da eta guztiz anonimoa.

Bestetik, Zeukesan web-orrialdeak, blogak, gizarte-sareak, bideo kanala eta kontsulta-postontzi anonimoa ditu, telefonoz deitu orde z idatzi eta zer gertatzen zaien neska-mutilei kontatzeko. Hainbat material hezigarriak ere eskuragarri.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/haurtzarorako-nerabezarorako-laguntza-telefonoa/hasiera/>

### EMAKUNDE

[Kirolean emakumeen kontrako sexu-jazarpenera eta abusuak prebenitzeko gida](#)

Gidaliburu hau Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak lagunduta dator. Bi gauza nahiko lituzke lortu: nola edo hala kirolari loturik dagoen pertsona oro jakitun egitea eta jabetuaraztea, jarrera onartezinak identifikatuz eta kirolean emakumeen aurka gertatzen diren sexu-jazarpenezko eta -gehiegikeriazko egoerei aurrea hartzeko neurriak proposatuz; eta gidalerro batzuk ematea, esparru honetan emakumeen aurkako sexu-jazarpenera eta

### DIRECCIÓN DE INFANCIA Y FAMILIA

ZEUK ESAN: SERVICIO DE ATENCIÓN A LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA.

Se trata de un amplio programa dirigido a la infancia y la adolescencia de Euskadi. Zeukesan dispone de teléfono de apoyo y página web. Por un lado, el teléfono de ZeukEsan, 116 111, es gratuito y totalmente anónimo.

Por otro lado, Zeukesan dispone de páginas web, blogs, redes sociales, canal de vídeo y buzón de consulta anónimo para escribir y contar lo que les ocurre a los chicos y chicas en lugar de llamar por teléfono. También están disponibles diversos materiales educativos.

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/telefono-ayuda-infancia-adolescencia/inicio/>

### EMAKUNDE

[Guía para la prevención de acoso y abuso sexual a mujeres en el deporte](#)

Los objetivos fundamentales de esta guía, impulsada por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer con la colaboración de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, son contribuir al conocimiento y la sensibilización de todas las personas vinculadas al deporte identificando las conductas que son inaceptables y proponiendo medidas para prevenir situaciones de acoso y abuso sexual a mujeres en el ámbito deportivo; así como proporcionar pautas para elaborar protocolos de actuación para intervenir en



gehiegikeriarik gertatzen bada, zer-nola egin jakiteko.

los casos de acoso y abuso sexual a mujeres que se produzcan en este ámbito.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

### JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

### DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

#### ZURE TALDEKOAK GARA LAGUNTZA ZERBITZUA

#### SERVICIO DE AYUDA ZURE TALDEKOAK GARA

Zure Taldekoak Gara laguntza-gune bat da Euskadin kirolaren esparruan gertatzen diren abusu eta sexu-jazarpen egoerak eta sexuagatik jazarpen egoerak desagerrarazteko.

Zure Taldekoak Gara es un espacio de ayuda para erradicar las situaciones de abuso y acoso sexual y acoso por razón de sexo en el ámbito del deporte en Euskadi.

Zerbitzu horretara jo dezakete bai zuzenean horrelako egoera bat pairatu duten pertsonak, bai beren kirol-eremuan horrelako egoeraren bat antzeman dutenek ere.

Pueden recurrir a este servicio tanto las personas directamente afectadas, como aquellas que hayan detectado una situación así en su ámbito deportivo.

Zure Taldekoak Gara zerbitzura jotzeko honako aukerak daude: 688 671 000 telefonoa (deiak eta whatsapp) astelehenetik ostiralera 9:30etatik 14:30etara, eta helbide elektronikoa [zuretaldekoakgara@euskadi.eus](mailto:zuretaldekoakgara@euskadi.eus)

El servicio de Zure Taldekoak Gara cuenta con un teléfono de ayuda: 688 671 000 (tanto llamadas como por whatsapp), activo de lunes a viernes de 9:30h. a 14:30h, así como con un correo electrónico: [zuretaldekoakgara@euskadi.eus](mailto:zuretaldekoakgara@euskadi.eus)